# Beste zenbait Iragarpen Ofizial
# Otros Anuncios Oficiales

**ARTZINIEGAKO UDALA**

**IRAGARPENA, 1992. urteko Lanbiderako Ageriko Eskaintzari buruzkoa.** 8022

**AYUNTAMIENTO DE ARTZINIEGA**

**ANUNCIO relativo a la Oferta Pública de empleo para el año 1992.** 8022

# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

**NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA**

**2374**

**230/1992 DEKRETUA, uztailaren 28koa, Euskal Autonomi Elkarteko Errentamendu Rustikoei buruzko Erregistro Berezia sortu eta arautzen duena.**

Errentamendu Rustikoei buruzko abenduaren 31ko 83/1980 Legeko 24. atalean ezartzen dena betez, Errentamendu Rustikoei buruzko Erregistro Berezia antolatzen da urriaren 9ko 2235/1985 Errege Dekretu bidez.

Erregistroa han kokatzen deneko Autonomi Elkarteko organuek kudeatuko duten Erregistro hau, publikoa, doangoa eta borondatezkoa izango da eta helburuak honako hauek: informazioa eskaintzea, koordinazioa egitea eta estatistika mailako laguntza ematea.

Dekretu honen bidez, Erregistro hori antolatzen da Euskal Autonomi Elkartearen eremu barruan eta horren kudeaketa Nekazaritzako Lurralde Kamerei ematen zaie, egiteko hori delegatu egin beharko dela aurrez Nekazaritza Kamerei buruzko ekainaren 15eko 6/1990 Legeko 4.1.c) atalean ezartzen denaren arabera.

Horiek horrela, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1992ko uztailaren 28an egin zuen bileran aztertu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.–* Euskal Autonomi Elkarteko Errentamendu Rustikoei buruzko Erregistro Berezia sortzen da eta Euskal Autonomi Elkartean kokatuta dauden funts rustikoen errentamendu-kontratuak inskribatu ahal izango dira bertan.

*2. atala.–* 1. Erregistro hau, publikoa, borondatezkoa eta doangoa da emankortasunari dagozkionetan.

2. Erregistroaren gai izan diren ekintzak, publiko bilakatzen ditu Erregistro honek. Hala ere, Erregistro honetako liburuen edukiak ez du eraginik izango, erregistroaren gai izan den ekintzaren baliotasunean eta ez ondorio juridikoetan ere, Erregistroarekin loturarik ez bait dute horiek.

**DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA**

**2374**

**DECRETO 230/1992, de 28 de julio, por el que se crea y regula el Registro Especial de Arrendamientos Rústicos del País Vasco.**

El Real Decreto 2235/1985, de 9 de octubre, dando cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 24 de la Ley 83/1980, de 31 de diciembre, de Arrendamientos Rústicos, organiza el Registro Especial de Arrendamientos Rústicos.

Este Registro, que será gestionado por los órganos correspondientes de las Comunidades Autónomas en que se ubica, se establece con caracter público, gratuito y voluntario y tendrá como fines los informativos, de coordinación y estadísticos.

El presente Decreto organiza, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el mencionado Registro, atribuyendo su gestión a las Cámaras Agrarias Territoriales, previa delegación de dicha función en el marco de lo establecido en el artículo 4.1.c) de la Ley 6/1990, de 15 de junio, de Cámaras Agrarias.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, previa deliberación del Consejo de Gobierno en su reunión de 28 de julio de 1992,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Se crea el Registro Especial de Arrendamientos Rústicos del País Vasco en el que podrán inscribirse los contratos de arrendamientos de fincas rústicas que radiquen en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma Vasca.

*Artículo 2.–* 1. El Registro se define en cuanto a su eficacia por los principios de publicidad, voluntariedad y gratuidad.

2. El Registro hace públicos los actos registrados. No obstante el contenido de los libros de este Registro no afectará a la validez ni a los efectos jurídicos del acto registrado, los cuales operan al margen del Registro.

3. Edozein pertsonak aztertu ahal izango du Erregistroaren edukia eta bai erregistroaren gai izan diren agiriak bertan daudenari, hitzez-hitzezko edukiari edo laburpenari buruzko nota arrunt bat edo egiaztagiri positibo edo negatiboa emateko eskatu ere.

*3. atala.*– 1. Erregistroa bakarra da. Hala ere, horren bulego bat sortuko da Lurralde Historiko bakoitzean eta Nekazaritzako Lurralde Kamerek izango dute horren funtzionamenduaren ardura. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailaren delegazioz egingo dute lan, ekainaren 15eko 6/1990 Legeko 4.1.c) atalean ezartzen den eremuaren barruan.

2. Nekazaritzako Lurralde Kamerako Idazkariak izango du, Erregistroak dituen bulego bakoitzaren ardura.

3. Erregistroaren ardura duenak har ditzan akordioetan, espreski erasota utzi beharko da, erabili den ahalmena delegazioz hartutakoa dela.

*4. atala.*– 1. Erregistroaren bulego bakoitzaren kudeaketa-eremu funtzionalak eta Nakazaritza Kamera bakoitzak duen lurralde mailako konpetentziek, bat etorri beharko dute.

2. Errentamendu rustikoaren kontratuak, Lurralde Historiko biri edo gehiagori dagokien lurralde barruan kokatuta dauden funts bat edo batzuk hartzea gertatuz gero, eskegileak aukera dezan bulegoan egin ahal izango da inskribapena. Hala ere, horrek eragina dueneko gainontzeko bulegoei kontratuaren zirkunstantzien berri eman beharko die han inskribatu deneko Erregistroko Bulegoaren arduradunak, errentamenduaren kontratua inskribatu zeneko hilaren hurrengo hilean.

3. Era berean jokatuko da, funtsaren zati bat Euskal Autonomi Elkartearen eremutik kanpo egotea gerta dadinean.

*5. atala.*– Inskribapena egitea eta horren azterketa burutze ekintzak, doangoak izango dira.

*6. atala.*– 1. Errentamendu kontratuak Erregistroan inskribatzea, borondatezkoa da eta kontratuan parte hartu dutenetariko edozeinek eskatuta gauzatuko da, kontratua egin dela ziurtatu dezaten agiriak aurkeztu beharko direla horretarako.

2. Administrazio Autonomiko edo Foralak, diru edo teknika mailako laguntzak emateko edo errentamendu erregimenpeko nekazaritza-ustiategiak indartzeko beste edozein neurri eskuratu ahal izateko aurrebaldintza gisa, errentamendu kontratuak behar den bezala erregistratuta egon daitezela eskatu ahal izango du, era honetan, Erregistroa erabil dadin lortu ahal izateko.

*7. atala.*– Honako instrumentu hauek izango ditu Euskal Autonomi Elkarteko errentamendu rustikoei buruzko Erregistro Bereziaren antolamenduak:

a) Agirien sarrera liburua.

b) Errregistroko irteera liburua.

c) Errentamendu kontratuak erregistratzeko liburua.

d) Artxibategi bat, kontratuaren edo aurkeztu diren agirien kopia bat gordeko dela bertan.

*8. atala.*– Honako hauek utzi beharko dira erasota sarrera liburuan: zenbakia, aurkezte eguna, abizenak, izena, aurkezlearen helbidea eta aurkeztu diren agirien klasea.

*9. atala.*– Inskribapenaren gai izan behar duten agi-

3. Cualquier persona podrá examinar el contenido del Registro así como solicitar y obtener la expedición, en su caso, de nota simple o certificación positiva o negativa acerca de la existencia o del contenido literal o extracto de los documentos registrados.

*Artículo 3.*– 1. El Registro es único. No obstante, en cada Territorio Histórico se constituirá una Oficina del mismo, cuyo funcionamiento se llevará a cabo por las Cámaras Agrarias Territoriales, quienes actuarán por delegación del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco en el marco de lo dispuesto en el artículo 4.1 c) de la Ley 6/1990, de 15 de junio.

2. Actuará como órgano encargado del Registro en cada una de sus Oficinas, el Secretario de la Cámara Agraria Territorial pertinente.

3. En los acuerdos que el encargado del Registro adopte se hará constar expresamente el caracter delegado de la facultad ejercida.

*Artículo 4.*– 1. El ámbito funcional de gestión de cada una de las Oficinas del Registro corresponderá con el de la competencia territorial de cada una de las Cámaras Agrarias.

2. Si un contrato de arrendamiento rústico comprendiera una o varias fincas que radiquen en el territorio correspondiente a dos o más Territorios Históricos, podrá inscribirse en cualquiera de sus Oficinas a elección del solicitante. No obstante el encargado de la Oficina del Registro en el que se hubiere inscrito deberá comunicar las circunstancias del contrato a las restantes Oficinas afectadas, dentro del mes siguiente al asiento en el libro de registro de los contratos de arrendamiento.

3. Igual procedimiento se seguirá si la finca se encuentra ubicada en parte fuera del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 5.*– El Registro será gratuito para las actos de inscripción y examen de su contenido.

*Artículo 6.*– 1. La inscripción de los contratos de arrendamiento en el Registro es voluntaria y se practicará, a petición de cualquiera de las partes, mediante la presentación de los documentos que acrediten la existencia de aquéllos.

2. Con el fin de fomentar el acceso al Registro, la Administración Autonómica o Foral podrá exigir como requisito previo a la concesión de auxilios económicos y técnicos o la obtención de cualquier otra medida de fomento a las explotaciones agrarias, en regimen de arrendamiento, que los contratos de arrendamiento estén debidamente registrados.

*Artículo 7.*– El Registro Especial de arrendamientos rústicos el País Vasco se organiza mediante los siguientes instrumentos:

a) Un libro de recepción de documentos.

b) Un libro de salidas del Registro.

c) Un libro de registro de contratos de arrendamiento.

d) Un archivo en el que ... depositará un ejemplar del contrato o de los documentos que se presenten.

*Artículo 8.*– En el libro de recepción de documentos se hará constar el número de asiento, la fecha de su presentación, apellidos, nombre y domicilio del presentante y clase de documentos presentados.

*Artículo 9.*– En el libro de salidas constarán las

riak aurkeztu dituzten pertsonei, Erregistroaren arduradunak egin dizkien komunikazioak utziko dira erasota irteera liburuan.

*10. atala.*– 1. Errentamendu Rustikoei buruzko Kontratuen Erregistro-Liburuan, honako zirkunstantzia hauek jasoko dira:

a) Jabearen eta maizterraren abizenak eta izena edo, izaiki juridikoa izanez gero, bere izena; egoitza, jabeak dituen eskubideen nolakotasuna, bakoitzaren Nortasun Agiri Nazionalaren edo Identifikazio Fiskalaren zenbakiak.

b) Kontratuaren gai den funtsa edo funtsak, bere azalera, non dagoen, banan-banan ezagutzeko bide emango duten gainontzeko zirkunstantziak eta ustiaketa edo horretarako erabiltzen deneko kultiboa.

c) Itunepeko errenta.

d) Kontratuaren iraupena.

e) Kontratua egin deneko lekua eta eguna.

f) Aurkeztu diren agirien moeta.

g) Kontratuaren aldaketak.

h) Inskribapena egin deneko eguna eta inskribapen kopurua.

i) Agiriak artxibatu direneko zenbakiaren hurrenkera.

2. Erregistroko arduradunaren izenpe eta guzti egingo dira inskribapenak.

3. Aurkeztu den agirian kontratuaren errentaren edo iraupenaren aipamenik ez egitea gerta dadinean, Errentamendu Rustikoei buruzko Legeko 22. atalean ezartzen diren presuntzioen arabera jokatuko da.

*11. atala.*– 1. Agiri bat, inskribatzeko xedez, Erregistroan aurkeztu dadinean, hartzen duen erakundeak, inskribatu egingo du agiri hori sarrea-liburuan, unean bertan. Aurkeztu dadin egunetik hasi eta hamabost eguneko epearen barruan, aztertu egingo ditu agiriak Erregistroko arduradunak, aurreko ataleko 1. apartaduan aipatzen diren datuak jasotzen diren ala ez ziurtatu ahal izateko. Datu guztiak jaso direla gertatuz gero, inskribapena egingo du kontratuen Erregistro-Liburuan, egin den inskribapena kreditatuko duen egiaztagiria emango zaiola aurkezpena egin zuenari.

2. Inskribatzeko eragozpen bide izan daitezkeen akatsak daudela gertatuz gero, ez da egingo inskribapenik. Erregistroko arduradunak emango duen suspentsio-akordioan, ikusi diren akatsen berri emango da eta zuzen jokatzeko egin behar diren aldaketei buruzko proposamena jasoko da bertan. Horren berri behar bezala eman ondoren, hamar lanegun izango ditu interesdunak eskatu zaizkion zuzenketak egin ditzan edo, hala behar izan dadinean, egokitzat jotako murtziloak aurkez ditzan, inskribapena egin edo ukatze akordioa hartu baino lehen.

3. Erregistroko arduradunak inskribapena ez egiteari buruz eman dezan erabakiaren aurka, gorajotze errekurtsoa tartejarri ahal izango du interesdunak, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko Nekazaritza eta Landen Garapenerako Zuzendariaren aurrean.

*12. atala.*– Inskribapena egin ondoren eman den edozein aldaketa erasota utziko da Errentamendu Rustikoen Kontratuei buruzko Erregistro-Liburuan, hori

comunicaciones realizadas por el encargado del Registro a las personas presentantes de documentos que hayan de inscribirse.

*Artículo 10.*– 1. En el Libro-Registro de Contratos de Arrendamientos Rústicos, que podrá estar compuesto de hojas móviles, se expresarán las siguientes circunstancias:

a) Apellidos y nombre del arrendador y arrendatario o su denominación si se trata de entidades jurídicas, su domicilio, la naturaleza del derecho del arrendador y números del Documento Nacional de Identidad de cada uno de ellos, o de Identificación Fiscal, en su caso.

b) Finca o fincas objeto de contrato, con su superficie, ubicación y demás circunstancias que permitan su individualización y la explotación o cultivo a que se destinan.

c) Renta pactada.

d) Duración del contrato.

e) Lugar y fecha del contrato.

f) Clase de documentos presentados.

g) Modificaciones del contrato.

h) Fecha y número de los asientos.

i) Número de orden con que quedan archivados los documentos.

2. Los asientos se practicarán con la firma del encargado del Registro.

3. Si en el documento presentado no constara la renta o la duración del contrato, regirán las presunciones que establezca el artículo 22 de la Ley de Arrendamiento Rústicos.

*Artículo 11.*– 1. Presentado en el Registro un documento para su inscripción el organismo receptor extenderá, en el acto, el oportuno asiento de entrada en el Libro de recepción de documentos. Dentro de los quince días siguientes a la fecha de su presentación, el encargado del Registro examinará la documentación recibida para comprobar si contiene los datos a que se refiere el apartado 1 del artículo anterior, procediendo, si así fuera, a practicar el asiento correspondiente en el Libro-Registro de contratos, expidiendo a quien efectuó la presentación de los documentos certificación acreditativa de la inscripción efectuada.

2. En el supuesto de que la documentación presentada adolezca de defectos que impidan su inscripción, se suspenderá su inscripción en el Registro. El acuerdo de suspensión,dictado por el encargado del Registro, expresará las deficiencias observadas y propondrá las modificaciones necesarias para su subsanación. Tras su debida notificación, el interesado dispondrá de diez días hábiles para efectuar las modificaciones requeridas o, en su caso, para presentar las alegaciones que considere oportunas, con carácter previo a la adopción del acuerdo que otorgue o deniegue la inscripción.

3. Contra el acuerdo del encargado del Registro denegando la inscripción, el interesado podrá interponer recurso de alzada ante el Director de Agricultura y Desarrollo Rural del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

*Artículo 12.*– En el Libro-Registro de Contratos de Arrendamientos Rústicos se hará constar cualquier modificación de los allí inscritos, mediante la presenta-

kreditatuko duten agiri publiko edo pribatuak aurkeztu beharko direla horretarako.

*13. atala.*– Errentamendu kontratuen Erregistro-Liburutik kendu egingo da inskribapena, kontratua amaitu egin dela kredita dadinean.

*14. atala.*– Errentamendu kontratuei buruzko Erregistro-liburuan egin daitezen insribapen eta kenketa guztien berri eman beharko zaio Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko Nekazaritza eta Landen Garapenerako Zuzendaritzari ekintza burutu dadin egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epearen barruan. Horretarako, Dekretu honetako eraskinean ematen den ereduaren arabera bete beharko den inprimakina bidali beharko da.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren arauak emateko esku ematen zaio Nekazaritza eta Arrantza Sailburuari. Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunetik hasi eta hogei egunetara jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko uztailak 28.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Nekazaritza eta Arrantza Sailburua,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

ERASKINA

Errentamendu Rustikoei buruzko kontratuen Erregistro Liburuan egin den inskribapenaren berri emateko dena.

Maizterra ..........................................................
(Abizenak eta izena)
Lanbidea ..........................................................
Egoitza .............................. Ident. Ag., zk...........

Jabea ..........................................................
(Abizenak eta izena)
Bere eskubidearen izakera ......................................
Egoitza .............................. Ident. Ag., zk.. ........

Errentaketaren gai izan diren funtsak:
Azalera .......................Udalerria ..........................
Ustiaketa edo kultiboa ..........................................
Erregadiorik gabekoa ..........................................
Erregadioduna ..........................................
Itunepeko errenta ..........................................
Kontratuaren iraupena ..........................................

Kontratua:
Lekua: .............................. Eguna: ................

Aurkeztu diren agiriak:
Moeta ..........................................................
Kontratuaren aldaketak: ..........................................

......................... 19......... ko ..............................

Erregistroaren Arduraduna,

Eguna, inskribapen zk ..........................................
Hurrenkera zk., agirien artxiboan ..............................

ción de los documentos públicos o privados que lo acrediten.

*Artículo 13.*– Los asientos del Libro-Registro de los contratos de arrendamiento se cancelarán cuando se acredite la terminación de los contratos a que se refieran.

*Artículo 14.*– De todos los asientos que se practiquen en el libro de Registro de contratos de arrendamiento, así como de sus cancelaciones se dará conocimiento, dentro del mes siguiente de haber sido extendido, a la Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, mediante la remisión del correspondiente impreso debidamente cumplimentado, según el modelo que se incluye en el anexo del presente Decreto.

DISPOSICION FINAL

Queda facultado el Consejero de Agricultura y Pesca para dictar las normas de aplicación y desarrollo del presente Decreto, que entrará en vigor en los veinte días de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de julio de 1992.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

ANEXO

Comunicación de Inscripción en el Libro de Registro de los contratos de arrendamientos rústicos.

Arrendatario ..........................................................
(Apellidos y nombre)
Profesión ..........................................................
Domicilio .............................. Doc. ident. núm. .........

Arrendador ..........................................................
(Apellidos y nombre)
Naturaleza de su derecho ......................................
Domicilio .............................. Doc. ident. núm. ........

Fincas arrendadas:
Superficie .......... Término municipal ..........................
Explotación o cultivo ..........................................
Secano ..........................................................
Regadio ..........................................................
Renta pactada ..........................................................
Duración del contrato ..........................................

Contrato:
Lugar: .............................. Fecha: ................

Documentos presentados:
Clase ..........................................................
Modificaciones del contrato: ..................................

......................... a ....... de ......................de 19....

El Encargado del Registro,

Fecha n.º del asiento ..........................................
N.º de orden archivo documentos ..............................